

**I. XEDAPEN OROKORRAK****ESTATUKO BURUZAGITZA**

**16088** *15/2019 Errege Lege Dekretua, azaroaren 8koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen XXV. Konferentzia Espainian antolatzeko.*

I

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena 1992ko maiatzaren 9an onartu zen, New Yorken, eta 1994ko martxoaren 21ean jarri zen indarrean. Harrezkero hitzarmen hori Batasuneko estatuen tresna nagusia izan da gizakiak eragindako klima-aldaketaren azelerazioaren kontra jarduteko hartutako konpromisoetan sakontzeko eta aurrera egiteko. Hitzarmenari atxikitako Batasuneko estatuek elkar harturik eta erakunde-esparru iraunkorrean lan egiten dute nazioartean klima-aldaketa murrizteko eta hartara egokitzeko egiten diren ahaleginak eraginkorragoak izan daitezen. Hitzarmenari atxikitako alderdiek erabakiak hartzeko organo gorena Alderdien Biltzarra da (COP), eta hark klimaren inguruko lehen saioa 1995ean egin zuen, Berlinen. Harrezkero, COPa aldizka biltzen da (urtean behin gutxienez), helburu berriak ezartzeko zein ezarritako helburuak lortu diren ebaluatzeko.

Hainbat urte negoziatzen eman ondoren, klima-aldaketaren kontrako borroka multilateralaren inflexio-puntua COP21ean gertatu zen, Parisko Akordioa sinatu zenean (Paris, 2015eko abendua). Akordio hura mugarri historikoa izan zen, herrialde guztiak juridikoki behartzen dituen eta helburu honetarako biltzen dituen lehen tresna izan baitzen: Lurraren batez besteko tenperatura globala 2°C baino gehiago ez igotzea industrializazioaren aurreko garaiko mailatik; gainera, ahalegin gehigarriak sustatzen ziren berotze globala 1,5°C-tik gorakoa ez izateko. Horrenbestez, Parisko Akordioak ahalik xederik handienak ezartzen ditu klima-aldaketak mundu osoan sortuko dituen arriskuak eta edukiko duen eragina murrizteko, eta,aldi berean, helburu horiek lortzeko behar diren elementu guztiak biltzen ditu.

COP25ean (Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen XXV. Konferentzia) hainbat bilera egingo dira: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko Alderdien Biltzarraren hogeita bosgarren saioa (COP25), Kyotoko Protokoloko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren hamabosgarren saioa (COP-MOP15), Parisko Akordioiko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren bigarren saioa (CMA2) eta Biltzarraren mendeko organoen berrogeita hamaikagarren saioa (Aholkularitza Zientifikorako Organoa - SBSTA eta Inplementaziorako Organoa - SBI). Gainera, Konferentziarekin lotutako ekitaldi paraleloak ere izango dira.

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen XXV. Konferentzia (COP25) Txileko Santiagon zen egitekoa, 2019ko abenduaren 2tik 13ra. Hala ere, herrialdeko egoera larriak eraginda, Txileko Gobernuak oraintsu adierazi du uko egiten diola konferentziari bere herrialdean egiteari.

Joan den urriaren 30ean Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Idazkaritza Exekutiboak adierazi zuen azkenean COP25a ez zela Txilen egingo, herrialdearen egoera zailaren ondorioz. Gainera, Idazkaritza Exekutiboak azaldu zuen esparru-hitzarmenean beste aukera batzuk aztertzen ari zirela klimaren goi-bilera egiteko, oso garrantzitsua baita COPak aldizka egitea estatuek klimaren arloan egiten dituzten ahaleginak benetan eraginkorrak diren argitzeke.

Are gehiago, COP25a funtsezkoa da nazioarteko komunitatearen estrategian, beraren helburua baita 2020. urtean herrialde guztiak 2050. urterako klima-neutraltasunaren helburua lortzeko epe luzerako dituzten estrategiak aurkeztea eta 2030. urterako emisioak murrizteko konpromiso nazional berriak aurkeztea. Gainera, biltzar horretan ahaleginak egingo dira hitzarmenari atxikitako herrialdeek berotze globalaren kontrako Parisko Akordioa garatzeko araudia adosteko. Izan ere, Parisko Akordioa ahalik azkarrena aplikatu

behar da, bertan datorren hamarkadarako ezartzen diren helburuak lortuko badira. Horregatik guztiagatik, COP25a atzeratzeak edo bertan behera uzteak ondorio txarrak edukiko lituzke klima-aldaketaren larrialdiari aurre egiteko nazioarteko esparru politiko eta juridikoaren garapenerako.

Hain zuzen ere, COP25ak balio behar du hitzarmenari atxikitako herrialdeek berotze globalaren kontrako Parisko Akordioa garatzeko araudia adosteko. Izan ere, Parisko Akordioa ahalik azkarrena aplikatu behar da, bertan datorren hamarkadarako ezartzen diren helburuak lortuko badira. Horrenbestez, COP25a atzeratzeak edo bertan behera uzteak ondorio txarrak edukiko lituzke klima-aldaketaren larrialdiari aurre egiteko nazioarteko esparru politiko eta juridikoaren garapenerako.

Joan den azaroaren 1ean Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Idazkaritza Exekutiboak adierazi zuen COP25a Madrilen egingo dela. Egoitza-aldaketa Txileko Errepublikak, Espainiako Erresumak eta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Gobernu Mahaiak adostu zuten (Mahaiak dauka erabakia hartzeko ahalmena).

COP25aren egoitza Madrilerara aldatzea bat dator hitzarmenari atxikitako estatuen erantzukizun solidarioarekin; aldaketari esker klimaren goi-bilera atzerapenik gabe egin ahal izango da.

## II

Errege lege-dekretu hau onartu aurreko hiletan Txileko agintariak hainbat neurri ezarri dituzte klimaren datorren abenduko goi-bilera prestatzeko. Bileraren antolaketa oso aurreratuta dago dagoeneko.

Nolanahi ere, lekuz aldatu denez gero, goi-bileraren egoitzaren alderdiei dagokienez, Espainiako Erresumak antolaketa-operatibo konplexuari ekin behar dio goi-bilera bertan egiteko prestatu ahal izateko. Nazioarteko goi-bilera berehala hasi behar denez gero, eta beraren tamaina kontuan hartuta, ezinbestekoa da ahalik eta arinena ezartzea operatiboa eraginkortasunarekin eta azkar gauzatzeko behar diren neurriak.

Neurriok errege lege-dekretu honen bidez ezartzen dira. Dekretuak hiru artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen dauzka.

Lehenbizi, Klimaren XXV. Goi Bilera modu efizientean antolatu eta egingo bada, ezinbestekoa da, ahal den heinean, sektore pribatuak parte hartzea sustatzea; horretarako, mezenasgorako zerga-pizgarriak emango dira. Abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, «aparteko interes publikoa duten gertakarien aldeko programak» arautzen ditu 27. artikuluan honelako kasuetarako. Programa horiek lege mailako arau baten bidez ezarri behar dira. Haien bitartez zerga-pizgarri bereziak eman daitezke legeak berak aparteko interes publikokotzat jotzen dituen gertakariak behar bezala gauzatzeko egiten diren mezenasgo-jarduketetan aplikatzeko.

Mezenasgorako zerga-pizgarrien araubide hori hizpide dugun kasuan aplikatu ahal izateko, errege lege-dekretu honen 1. artikulua adierazten du honako programa hau aparteko interes publikokoa dela abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako: «Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko Alderdien Biltzarraren hogeita bosgarren saioa (COP25), Kyotoko Protokoloko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren hamabosgarren saioa (COP-MOP15), Parisko Akordioa Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren bigarren saioa (CMA2) eta Biltzarraren mendeko organoen berrogeita hamaikagarren saioa (Aholkularitza Zientifikorako Organoa - SBSTA eta Inplementaziorako Organoa - SBI)». Halaber, errege lege-dekretu honen 1. artikuluan laguntza-programaren iraupena ezartzen da: 2019ko azaroaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra arte. Gainera, artikulua horretan ezartzen da organo eskudunak garatu eta zehaztu behar dituela egin beharreko jarduketak, eta programaren zerga-pizgarriak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan arautzen diren handienak izango direla, eta arautzen da lege hori aplikatu behar dela egiten diren gastuak programaren helburuetarako eta planetarako egokiak diren edo ez egiaztatzeko.

Bigarrenik, klimaren goi-bilera ezarritako egunetan egin ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Administrazio Orokorreko hainbat organok jarduketa ugari egitea; horietako batzuk ezin dira gauzatu Administrazioaren baliabideekin, eta, beraz, hirugarrenek egin behar dituzte, kontratu publikoen bitartez. Kontratazioaren arloko presazko neurriak ezarri behar dira goi-bilera geratzen den denboran prestatu ahal izateko.

Horrenbestez, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 119. artikuluan arautzen duen presako prozedura aplikatzea ez da aski behar diren kontratuak dagoen aldi laburrean egingo direla bermatzeko (9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan xertatzen baitira). Manu horrek bidea zabaltzen du kontratazio-prozedurak azkartzeko ohiko kasuetarako ezarritako epealdietako batzuk laburtuz; hala ere, horren ondoriozko prozeduren iraupen osoa luzeegia izango litzateke errege lege-dekretu hau eragin duen egoerari aurre egiteko.

Horregatik guztiagatik, behin-behinean, errege lege-dekretu hau eragin duen egoera ezohikoa dela aintzat harturik, errege lege-dekretu honen 2. artikulua lehen apartatuan adierazten da Klimaren XXV. Goi Bilera datorren abenduan egiteak justifikatu egiten duela azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan arautzen den larrialdiko izapidetzea aplikatzea bilera hori prestatzeko eta egiteko behar diren kontratuei. Manu horrek ondorioak edukiko ditu, orobat, Klimaren XXV. Goi Bileraren antolakuntzaren ondoriozko beharrezanean erantzuteko asmoarekin errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik izapidetzen hasitako kontratuetan ere.

Beste alde batetik, Nazio Batuen Klimaren XXV. Goi Bilerarako jarritako funtsak ahalik ondoena kontrolatzeko, errege lege-dekretu honek kudeaketa-batasun nahitaezkoa ezartzen du: justifikatu beharreko ordainketak. Azaroaren 8ko 9/2017 Legeko figura hori aukerakoa da; beraren xedea kudeaketa azkartzea da (hori oso garrantzitsua da halako epealdi laburrak ezarrita daudela), eta, gainera, kontrola hobetzea, kudeaketa igorpenen justifikaziorako azaldu beharreko kontuetan islatuko baita. Nolanahi ere, aurrekoaz gainera, sistema osatu egin daiteke, bai beheagoko mailako arauen bidez, bai beharrezko administrazio-egintzen bidez (kutxa ordaintzaileak sortu, kontu korrontek ireki...).

Hirugarrenik, errege lege-dekretu honen 3. artikulua ezartzen du Ingurumeneko estatu-idazkariak edukiko duela eskumena kontratuak egiteko, egin behar diren gastuak onartzeko eta agintzeko (kontratuenak zein bestelakoak) eta dagozkien betebeharrak onartzeko; horren helburua da bermatzea kudeaketa guztiak ondo antolatuta eta modu efiziente batean egiten direla, administrazio-organo bakar baten agintaritzapean.

Gainerakoan, goi-bilera ezarritako aldiak prestatzeko eta egiteko, beharrezkoa da Estatuko Administrazio Orokorrek berehala izatea horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskuratzeko modua. Horretarako, errege lege-dekretu honen lehenengo xedapen gehigarriak ahalmena ematen die Ogasun Ministerioari eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioari langileen arloan behar diren neurri guztiak hartzeko, Nazio Batuen Klimaren XXV. Goi Bilera Madrilen egitearekin lotuta dauden jarduketa guztiak gauzatzeko eta garatzeko. Bigarren xedapen gehigarriak, berriz, xedatzen du ezarritako jarduketak Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrek ezartzen duenarekin bat etorri finantzatzeko direla eta aurrekontuan baliagarri dauden kopuruen kargura ordainduko direla. Ogasun Ministerioak horretarako behar diren aurrekontu-aldaketak onartuko ditu.

### III

Errege lege-dekretua Konstituzioaren araberrako tresna zilegia da, baldin eta Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan ezartzen diren mugak errespetatzen badira, bai honelako arau juridikoa erabiltzeko baldintzaren inguruko mugak, bai muga materialak.

Lehenik, Konstituzio Auzitegiak hainbat aldiz esan duen bezala (adibidez: 61/2018 epaia, ekainaren 7koa), aparteko eta presako beharrezanaren baldintza betetzat emateko, bi inguruabar hauek gertatu behar dira. Batetik, presaka jardun beharra egon behar da, eta Gobernuak halako araua onartzeko kontuan eduki dituen arrazoiak azaldu behar ditu, era

esplizituan eta arrazoituta. Bestetik, ezinbesteko lotura egon behar da zehaztutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko ezarritako neurriaren artean.

Presaz denaz bezainbatean, Konstituzio Auzitegiak adierazi du ezen, Gobernuaren helburuen barruan, nahitaezkoa dela aurrez ikusteko zailak diren arrazoiengatik egoerari aurre egiteko ezinbestekoa izatea araudia berehala ematea, hau da, ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilia beharko litzatekeena baino epe laburragoan (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarri juridikoa). Gainera, honako hau ere adierazi du: «Auzi honetan kontuan eduki beharrekoa ez da zerk ekarri duen legegintzan presaka aritzea justifikatzen duen egoera, baizik eta egoera hala izatea» (11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 6. oinarri juridikoa). Eta baztertu egin du «Gobernuak legeak presaka emateko ahala ezinbestean edo larrialdietan soilik erabiltzea» (68/2007 epaia, 10. oinarri juridikoa; 137/2011 epaia, 7. oinarri juridikoa).

Egoerak ekarri du, klimaren goi-bilera ondo prestatzea eta egitea xede harturik, antolaketaren inguruko neurriak eta sektore pribatuak parte hartzea sustatzeko neurriak ezarri behar izatea, eta hori berehala bete behar da araugintzaren bidez. Araua lege mailakoa izan behar da, ezarri beharreko neurriek eragina edukiko baitute lege mailako indarreko arauetan (49/2002 Legea, abenduaren 23koa, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa). Prestakuntza-jarduketetako asko goi-bilera hasi aurretik egin behar direnez gero, argi dago ezin dela itxaron lege baten izapidetze parlamentarioa amaitu arte, batez ere egungo egoeran, ganberak deseginda daudela (ez dira berriz eratuko abenduaren hasierara arte).

Zehaztutako aparteko eta presako beharrianaren eta errege lege-dekretuan ezartzen diren neurrien arteko loturari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak bi irizpide hartzen ditu kontuan: «batetik, errege lege-dekretuaren edukia; bestetik, beraren egitura» (29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 1/2012 epaia, urtarrilaren 13koa, 11. oinarri juridikoa; 39/2013 epaia, otsailaren 14koa, 9. oinarri juridikoa; 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa).

Errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriek lotura argia dute haren onarpena justifikatzen duen aparteko eta presako beharrianarekin. Batetik, klimaren goi-bilerarako onartzen da berariaz, hau da, abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan arautzen dituen aparteko interes publikoa duten gertakarien aldeko programen figura aplikatu daitekeen kasu baterako. Bestetik, kasu jakin honetarako onartzen den manuaeren arabera, presako izapidetzea aplikatu ahal zaie (azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluko) goi-bileraren antolaketak dakartzen beharrianei erantzuteko sinatu beharreko kontratuei. Hain zuzen ere, manua ahalik gehiena murriztu da eta aurre egiten dion egoera onbidertzeko ezinbestekoa dena baizik ez du arautzen: bidea zabaltzen du mezenasgoa sustatzeko neurriak eta goi-bilera egiteko behar diren kontratuak dagoen aldi laburrean abian jartzeko, baina aurreko arautegian aldaketa orokorra egin gabe. Gainera, Ingurumeneko estatu-idazkariari ematen zaizkio kontratazioaren inguruko eskumenak, kudeaketa guztiak ondo antolatuta eta modu efizientean egiten direla bermatzeko, administrazio-organo bakar baten agintaritzapean. Halaber, gaiaren arabera eskumena duten ministerioei ahalmena ematen zaie behar diren giza baliabide guztiak eta behar den kreditua bermatzeko.

Aipatutako arrazoi horiek ondo baino hobeto justifikatzen dute Konstituzioan aipatzen den aparteko eta presako beharriana. Beharriana horrek, Konstituzioaren 86.1 artikulua arabera, gaitasuna ematen dio Gobernuari errege lege-dekretu hau emateko, Estatuaren politika zuzentzeko organoa den heinean (Konstituzio Auzitegiaren 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa; Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. eta 7. oinarri juridikoak).

Errege lege-dekretu honek, bigarrenik, Konstituzioak arau-tresna hau erabiltzeko ezarritako mugak errespetatzen ditu; izan ere, ez du ukitzen Estatuaren oinarritzko instituzioen antolamendua, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren

eskubideak, eginbeharrak eta askatasunak, ez autonomia-erkidegoen araubidea, ez hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorra.

1. artikuluko neurriez denaz bezainbatean, Konstituzio Auzitegiak honako hau zehaztu zuen: «Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua lege-dekretuaren esparrutik ateratzen ditu Konstituzioaren I. tituluan finkatutako betebeharrak; baina, hori egitean, «guztiek» gastu publikoei aurre egiten laguntzeko konstituzio-betebeharrean eragina duten araugintzako esku-hartzeak edo berrikuntzak eragotzi nahi ditu; baina ez edonolako eragina daukatenak, baizik eta eragin handia edo funtsezkoa daukatenak bakarrik». Horrela, irizpide erabakigarria da horrek zenbateko eragina daukan zergadunen artean osotasunean zerga-karga banatzeko orduan (Konstituzio Auzitegiaren 182/1997 epaia, 7. oinarri juridikoa, besteak beste).

#### IV

Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 21.3 artikuluan ezartzen du jarduneko gobernuak ahalmena daukala «gai publikoen kudeaketa arrunterako» eta bestelako neurriak ezartzeko «ondo egiaztatutako larrialdietan» eta «interes orokorreko arazoak tartean daudenean».

Auzitegi Gorenak esan du manu horren helburua, batetik, jarduneko gobernuak bere egitekoetan jardutea bermatzea dela, eta, bestetik, jardun horretan, aparteko kasuetan izan ezik, «jarraibide politiko berririk ez sartzea eta hurrengo gobernuak ezartzen dituenak ez baldintzatzea, arriskuan ez jartzea eta ez eragozteka bermatzea»; beraz, «jarduneko gobernuak egin dezakeenaren eta egin ezin dezakeenaren arteko muga ez du ezartzen legegintzako egintzen eta bestelako egintzen arteko bereizketak, baizik eta jarraibide politikorik gabeko egintzen eta jarraibide politikoen arabera egintzen artekoak, zeina aipatua baitugu» (Auzitegi Gorena, 2005eko abenduaren 2ko epaia).

Errege lege-dekretu honetan aipatzen diren gobernuaren jarduketek ez dakarte berekin jarraibide politiko berririk. Gainera, jarduketa horiek ez dituzte inolaz ere baldintzatzen ez konprometitzen hurrengo hauteskunderen ondorioz eratuko den gobernuak eman beharreko gidalero politikoak. Klimaren goi-bilera behin-behineko gertakaria da, egun batzuk baino ez du iraungo eta ez du edukiko inolako eraginik hurrengo gobernuaren zuzendaritza politikoaren etorkizuneko jardunean. Beste alde batetik, goi-bilera laster egin behar denez gero, ezinbestekoa da neurriak ahalik azkarrena ezartzea.

Gainera, azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 21. artikuluan 4. eta 5. apartatuetan, jarduneko gobernuak erabili ezin dituen zenbait ahalmen zehazten dira. Hain zuzen ere, 21.4 artikuluan ezartzen da jarduneko gobernuak ezin diola proposatu erregeari ganberak edo Gorte Nagusiak desegitea, ezin duela konfiantza-arazoa aurkeztu, ez eta erregeari proposatu kontsulta-erreferendumerako deialdia egitea ere. 21.5 artikuluan xedatzen da jarduneko gobernuak ezin duela onartu Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua, ez lege-proiekturik aurkeztu Diputatuen Kongresuari ez Senatuari. Ikusten den bezala, artikulua horietan arautzen diren gaiek ez dute zerikusirik batere errege lege-dekretu honetan arautzen direnekin; beraz, ez dute inolako eragozpenik ezartzen jarduneko gobernuak errege lege-dekretu hau onartzeko.

#### V

Errege lege-dekretu hau prestatzeko lanean kontuan hartu dira beharizanaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak, hala agintzen baitu Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua.

Alde batetik, argi dago proportzionaltasunaren printzipioa betetzen dela, arau honetan ezartzen diren neurri guztiak bat baitatoz erabat beraren bitartez lortu nahi den helburuarekin. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen da, errege lege-dekretua bat baitator Estatuko eta Europar Batasuneko ordenamendu juridikoarekin; beraz, ondo eta modu egokian txertatzen da indarreko erregulazioan. Gainera, araua gardentasunaren printzipioari lotzen zaio, argi eta garbi zehazten baitu zerk eragin duen

eta zein diren beraren helburuak (azalpen-zati honetan eta arau-eraginaren azterketari buruzko memorian azaltzen dira). Ez dira egin herritarrek parte hartzeko izapideak, errege lege-dekretuak izapide horietatik salbuetsita baitaude, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26.11 artikuluan ezartzen duen bezala.

Bestalde, errege lege-dekretu honetako neurriak egokiak eta neurrizkoak dira eurak onartu beharra ekarri duten beharrezan betetzeko. Egoera honetan, ez dago murrizketa gutxiago ekarriko lukeen edo jasotzaileei betebeharrak gutxiago ezarriko liekeen alternatibarik.

Araugintzaren Koordinaziorako eta Kalitaterako Bulegoak nahitaezko txostena egin du, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26. artikuluen 9. eta 11. apartatuetan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimenez baliatuz, Gobernuaren presidenteorde eta Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetarako eta Berdintasuneko ministroak, Ogasuneko ministroak, Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko ministroak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak (Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko ministroaren ordezkari gisa, 351/2019 Errege Dekretuarekin bat etorritik) eta Trantsizio Ekologikorako ministroak proposatuta, Ministroen Kontseiluak 2019ko azaroaren 8ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Honako ekitaldi honi aplikatuko zaizkion zerga-onurak: «Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko Alderdien Biltzarraren hogeita bosgarren saioa (COP25), Kyotoko Protokoloko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren hamabosgarren saioa (COP-MOP15), Parisko Akordioko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren bigarren saioa (CMA2) eta Biltzarraren mendeko organoen berrogeita hamaikagarren saioa (Aholkularitza Zientifikorako Organoa - SBSTA eta Inplementaziorako Organoa - SBI)».*

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako, honako programa hau aparteko interes publikokoa izango da: «Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko Alderdien Biltzarraren hogeita bosgarren saioa (COP25), Kyotoko Protokoloko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren hamabosgarren saioa (COP-MOP15), Parisko Akordioko Alderdien Batzarrerako Alderdien Biltzarraren bigarren saioa (CMA2) eta Biltzarraren mendeko organoen berrogeita hamaikagarren saioa (Aholkularitza Zientifikorako Organoa - SBSTA eta Inplementaziorako Organoa - SBI)».

2. Gertakari horri laguntzeko programak 2019ko azaroaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra arte iraungo du.

3. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, abenduaren 23ko 49/2002 Legean xedatzen dena aplikatuko da.

4. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak egingo dira. Organo eskudunak edukiko du planak eta jarduera zehatzen programak prestatzeko eta gauzatzeko ardura, abenduaren 23ko 49/2002 Legean ezartzen denaren arabera.

5. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27.3 artikuluan xedatzen dituen gehienekoak izango dira. Nolanahi ere, honako hauek kontuan hartuko dira abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluko lehen zenbakiko bigarren paragrafoan ezartzen den muga kalkulatzeko: babesleek gertakariko programak eta jarduerak gauzatzeko arduratzen diren entitateei (abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 2. artikuluan zehazten direnei) babes modura ematen dizkieten zenbatekoak.

2. artikulua. *Kontratazioa.*

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen ondorioetarako (sektore publikoko kontratuena, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen

baitira), Nazio Batuen Klimaren XXV. Goi Bilera Madrilen egiteko egin beharreko kontratu guztiak lege horren 120. artikuluan arautzen den bezala izapidetuko dira.

2. Manu horrekin bat etorritz, goi-bileraren antolaketak eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar diren funtsen igorpena justifikatu beharko da.

3. artikulua. *Organo eskuduna.*

Aurreko artikuluan aipatzen diren kontratuen kontratazio-organoa Ingurumeneko estatu-idazkaria izango da. Horrez gainera, Ingurumeneko estatu-idazkariak eskumenak edukiko ditu egin behar diren gastuak onartzeko eta agintzeko (kontratuenak zein bestelakoak) eta dagozkien betebeharrak onartzeko.

Lehen xedapen gehigarria. *Langileen arloko neurriak.*

Ahalmena ematen zaie Ogasun Ministerioari eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioari langileen arloan behar diren neurri guztiak hartzeko, Nazio Batuen Klimaren XXV. Goi Bilera Madrilen egitearekin lotuta dauden jarduketa guztiak gauzatzeko eta garatzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. *Aurrekontu-kredituak.*

Egitekoak diren jarduketak Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak ezartzen duenarekin bat etorritz finantzatuko dira eta aurrekontuan baliagarri dauden kopuruen kargura ordainduko dira. Ogasun Ministerioak horretarako behar diren aurrekontu-aldaketak onartuko ditu.

Xedapen iragankor bakarra. *Errege lege-dekretuan ezartzen diren neurri batzuen aplikazioa.*

1. 1. artikuluan arautzen den laguntza-programa 2019ko azaroaren 1etik aurrera aplikatuko da.

2. 2. artikuluan xedatzen dena Nazio Batuen Klimaren XXV. Goi Bilera Madrilen antolatzearen ondoriozko beharrezanean erantzuteko asmoarekin errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik izapidetzen hasitako kontratuei aplikatuko zaie.

Azken xedapenetako lehena. *Erregelamenduzko garapena eta betearazpena.*

Gobernuari eta ministerio-departamentu guztietako titularrei, bakoitzari bere eskumen-eremuan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Madrilen, 2019ko azaroaren 8an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN